



Santa Krutz jaietan murgildu dira andoaindarrak

Ostegunean, Kuadrillen Eguna; ostiralean, Santa Krutz Eguna; larunbatean, auzo bazkaria; eta, igandean, azken txanpa / 6-11

Azkorten, jaia

Maiatzaren 3an eta 5ean, bietan, Urnietako basilizan / 14

Ahuakateak landatzea erabaki dute Urnietako Azkonobieta baserrian. Elkarrizketa Ainhoa Larreari / 2-3

Loitegi eta Ansa urnietarrak Erremontari txapelketaren edizio berrian / 12

Sua Enparantza "Irabazi Arte" telesaileko protagonistari elkarrizketa / 5



UDALEKUAK
2024 URNIETA

IZENA EMATEA
maiatzaren 3ra arte izango da

T. 943 00 80 00
T. 943 00 80 33
udalekuak@urnieta.eus
www.urnieta.eus/udalekuak

Urnietako Udala

Instagram Facebook Twitter



Bi urte atzera ahukateak landatzea erabaki zuen Larreak. Erabaki arrisksua, edo ziurgabetasun handikoa. AIURRI

Andoni Urbistondo URNIETA

Azkonobieta baserriko soroak aberats sumatzen dira apirilko goiz freskoa epeltzen duen eguzki izpi gozoez bila. Soroen arduradunak erakusten duen irribarrea bezala. Pozik baita Ainhoa Larrea landatu dituen zuhaitzak bisitatzen, fruiturik eman ote duten, edo besterik gabe, osasuntsu ote dauden jakiteko. Bi urte atzera ahukateak landatzea erabaki zuen Larreak. Erabaki arrisksua, edo ziurgabetasun handikoa. Gaur da eguna argi printzak ikusten hasi dena. Zuhaitzak fruitua ematen hasi dira, baina oraindik beste urte pare bat beharko ditu, ezusteko edo atzera pausorik gabe, ahukate landaketak merkaturatu eta sosak eman diezazkion.

2022 urtera egingo dugu atzera. Ahukate landaketa noiz, nola hasi zen gogoratzeke. Larrea: “Landaketa emankorra izan zitekeela beste ahukate landaketa batzuk ikusi nituenean jabetu nintzen. Bizkaian egon nintzen, Asturiasen, Kantabrian, Irunen... gure antzeko klima duten landaketak, guztiak. Oso itxura polita ikusi nien, eta ausartu nintzen baserrian gauza bera egitera. Uda ondo pasa zuten, eta lehen negua beldur batean pasa nuen, ahukateak

Urre koloreko fruitua

Bi urte atzera ekin zion Ainhoa Larreak ahukate landaketari, zalantza putzu batean, baina zuhaitzak hasi dira fruitua ematen, eta esperantza badu, urte pare batean merkatua lortzeko; ahukate landaketa ahoz aho dabil nekazaritza sektorean

tamainaz txikitu egin zirelako. Pentsatu nuen, buf, akabo, hauek ez dute aurrera egingo”.

Baina egin zuten. Iazko udaberrian hazi egin ziren oster, eta bilakaera hori ikusita bigarren landaketa bat egitera animatu zen Larrea: “Lehenengoan 150 zuhaitz landatu nituen, eta bigarrenean 550. Bigarren landatze hori iazko ekainean. 700 zuhaitz denera”. Hirugarren sail kokor bat ere jarri zuen, iazko azaro bukaeran. “Azken sail horretako dozena erdi edo akabatu zaizkit bukatu berri den neguan, hotzarekin, baina beste 55 zuhaitzek iraungo dute”. Proportzioa ontzat ematen du Ainhoak: “Landaketa erdiak

aurrera egin ez duen ustiaketak ezagutzen ditut”, bota du.

Ahukate landaketa berria da Euskal Herrian. Ez dauka aurrerari handirik, eta hortik landaketa arrisksuaren sona. Larreak eman dizkigu arrasto batzuk: “Ez du lan fisiko handirik eskatzen duen landaketa. Bi urtean behin bakarrik ureztatu dut soroa, baina hemen nahikoa euri botatzen du. Behar dutena baino hirukoitza botatzen du Urnietan. Berez gehiegi, baina gehiegi botata ere ez dira kaltetzen”. Hotzak errespetu gehiago ematen zion Azkonobieta baserrikoari: “Banekien ahukate mota batzuk -2 edo -3ko tenperaturak jasateko gai

zirela, baina Malagako landaketetako datuak aintzat hartuz. Baserri ondoan estazio meteorologikoa daukagu, eta gurean azken bi urtetan tenperatura ez da -2.7 gradutik jaitsi. Lesakan -5 ere aguantatu izan duela badakigu, ahukate mota batzuk gogorragoak direnaren seinale”. Larrearentzat une edo ordu batzuetako tenperatura hotzak baino, zeroz azpiko tenperaturak ordu askotan, edo egun batzuetan luzatzea da arrisksua, eta hori Euskal Herriko Kantauri isurialdean ez da sarri gertatzen.

Eguraldiaz harago, beste faktore bat nabarmentzen du baserriarrak, ahukatearen bilakaera onean: “Lurraren presta-

keta. Zortekoa naiz, anaiak prestatzen didalako makinarekin, bestela gastu handitan sartuko ginatkeelako. Lurra ondo prestatzen baduzu, ondoren landarea hobeto egoten da”.

Ahukatearen ezaugarriak

Zuhaitzi bakoitzak zenbat fruitu eman ditzakeen galdetu diegu Larrearri: “Hori jakiteko 10 urteko prozesua bukatu arte itxaron beharko dugu, baina datu bat emate aldera; loraldiko zuhaitz bakoitzak 500 eta 800 bat ale eman ditzakeela esango nuke. Zuhurtzia osoz, oraindik ez baitugu ahukateren hazkuntza prozesuaren informazio guztia”.

Ahukatea balio handia hartzen ari da herritarren begietara, eta gehiago hartuko omen du, etorkizunean. Larrea: “Jendeak gero eta gusturago jaten du ahukatea, gero eta gehiago. Oso kopuru txikia jaten dugu gurean Alemania eta Frantziarekin alderatuta. Ohitura faltagatik, ziur aski, baina hori aldatzen ari da urtetik urtera. Kontsumoa igotzen ari da, eta Europan kontsumitzen duten ia dena Andaluzia eta Valentzia aldetik inportatzen dutenez, guk hemen Amerikako produktua kontsumitzen dugu: Txile, Peru, Kolonbia, Mexikotik zerbait... Jaten duguna ez da on-ona, eta bertako ekoizpenak hornituko du demanda etorkizunean”.

Hausnarketari segida eman dio Ainhoak: “Bertakoa izateak balio izugarria emango dio ahukateari. Orain kontsumitzen dugunaren jatorria begiratu eta hainbat herrialdeetatik dator. Sarri desgaraian bildutako fruitua da, eta ez dakigu ze prozesu kimiko pasa dituen. Nirea, gainera, ekoizpen ekologikoa da, eta kontrol neurriak oso zorrotzak dira. Bertako produktua atzerrikoa baino hobetagoa izaten da ia beti, garestiagoa izanda ere”.

Garestia aipatu du. Zenbatean ordaintzen da, bada, ahukatea? Honatx erantzun mamitsua: “Ahukate kilo bospasei eurotan dago egun supermerkatu handietan. Banaka erosten baduzu, ale bakoitzak bi euro balio du, gutxienez. 2.30 ere bai, agian. Horrek esan nahi du herriko fruta dendan kilo bederatzi bat euroan dagoela”. Prezio benetan handia, ahukate landaketak mozkina, eta onak

eman ditzakeela pentsatzera daramatenak, baina adi: “Ahuakate landaketak ez du behartsu bat aberats egiten gauetik goizera”, bota du Ainhoak. “Jendeak nahi du gaur hazia jarri eta bihar fruitua jaso, saldu eta irabaziak zenbatu. Baina hori gaur-gaurkoz ez da posible”.

Ahuakatearen sukarra!

Ahuakatea soroetako produktu izarra bilakatu da azken aldian. Nekazal lurretan aritzen den, edo aritu nahi duen orok ahukateak begiz jota dituela dio Ainhoak, eta formazio ikastaroetako datuak dakartza solasaldira, hori frogatzeko: “Fruitel Gipuzkoako Fruta Ekoizleen eskutik solasaldi bat antolatu zen Fraisoro Nekazal eskolan. Iñaki Ormaza CSIC Zientzia Ikerketen Batzorde Gorena erakundeko ikertzailea izan zen hizlaria. Fraisoren klase teorikoa hartu genuen, eta biharamunean praktikoa Irungo eta nire landaketetan. Harrituta geratu nintzen izena eman zuen jende piloarekin. 45 lagun, eta jende ezaguna tartean”.

Batzuengan kuriositatea sumatu zuen Ainhoak, “baino beste askorengan etorkizunean ahukateak lantzen hasteko grina handia. Berehalakoa, ia-ia, ahukateak urrea balira bezala, aberastasuna musu truk emango balute bezala. Eta zuhurtziaz jokatu behar da, ahukate landaketa oso esperimentalak delako. Ni bidea egiten ari naiz, baina ez daukat arrakasta ziurtaturik. Hainbat ahukate mota, zain ezberdinak lantzen ari naiz, ikasten, ondoen aurrera zeinek egiten duen aztertzeko, hori landatzeko”. Larreak Hass motako ahukateak dastatu ditu, dagoeneko, eta onak daudela dio. Lamb Hass mota ere landatu du, “bi mota komertzialenak. Reed mota ere bai, nire asmoa urte osoan ahukateak biltzea baita”.

Nola lan egin ikasteko eredu bakarra dute gertu bertako nekazariak: Kantabriako nekazal eskolak Villapresenten daukan lursaila. Hara joatekoa da, laster. Jendeak dagoeneko Ainhoari berari galdetzen dio zein ahukate mota landatu behar duen, edabe magikoaren jabe balitz bezala. “Esaten diet: ‘neronek baneki...’. Duela bi urte arrisku handia hartu nuen, zehatz zein ahukate mota landatu ez ne-



Ahuakatea soroetako produktu izarra bilakatu da azken aldian. AIURRI



Kantabriako nekazal eskolara joatekoa da, hango eredu ezagutzen. AIURRI



"Bidea egiten ari naiz, baina ez daukat arrakasta ziurtaturik". AIURRI

kiela, eta denak landatu nituen. Ikusi dut ze motak erantzuten duten ondo, eta horrekin ekin behar. Baina lau edo bost urte itxaron beharko dut ziurtasunen bat izateko”.

Lan fisiko handirik gabe, landatu aurreko prestakuntza handia eskatzen du ahukateak. Larrea: “Motak aukeratu behar dituzu, eta sarean ikertu, hara eta hona ibili landaketa ezberdinetan... Aitzurrarekin ez naiz ordu asko ibili, baina interneten...”. Larreak ez du sosik jaso oraino, baina ohituta omen dago. “Sagararak landatu nituenean ere zazpi urte eman nituen zain diru pixka bat jaso arte. Orain bi bakarrik daramatzat, azkar pasa dira”.

Data bat dauka buruan: “2025ean inguruko jendea iraritu eta saltzen hasteko moduan egon ninteke. Ezagutzera emateko aukera izango dut hortik aurrera, eta 2026an eskala handiagoan saltzen hasi. Zuhaitz bakoitzak kilotan, urte kaskar batean 20 bat kilo eman ditzake, eta urte onean 50-60 bat kilo. Produktzioa handia da, eta laugarren urtean has zaitzke egindako inbertsioari buelta ematen. Baina ahukate landaketan bi gehi bi ez dira lau izaten beti”.

Bolo-bolo dabilen eztabaida, bukatzeko: ahukatea Euskal Herriko fruitua ote da? Eztabaida handia da. Zitrikoak ere ez omen dira, baina gurean gertatzen ari den klima aldaketarekin izango direla diote zenbaitek. Ainhoak asko daki gai honetaz, honatx bere iritzia: “Euskadi Irratian entzun nuen gure paisaiako frutak izango direla laster zitrikoak. Izango dira ez, gurean daude aspaldi, baina ez gara jabetu: limoiak, mandarinak, pomeloak, yuzu-ak... Nork ez du ezagutzen fruitu horiekin beteta dagoen zitriko zuhaitzen bat? Etxe atarian dut bat. Urrietako Magale ikastetxean ere hainbat zitriko zuhaitz daude. Edota Kutzako bulegoaren atzealdean, ahukate zuhaitz handia. Zelai-aldean bestea, are handiagoa, aparkalekuaren atzean. Baina inori ez zaigu ahukate sail bat jartzea bururatzeko. Zergatik? Betikoogatik. Ez delako hemen-go!!! Batzuk kotxeei begiratzen diete, nik zuhaitzei eta landareei”. Eta batez ere ahukateei. Ainhoak eta gero eta jende gehiagok.

TXOKOTIK ZABALERA**UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA** MARRAZKILARIA**IN MEMORIAM****PABLO BARRUTIA PONCE** SUKALDARIA**Pablo Barrutia Ponce, Buruntza jatetxeko sukaldaria**

Andoaingo Kaletxiki Auzoan urte luzez zabalik izan zen Buruntza jatetxeko sukaldari Pablo Barrutia Ponce zendu zen, aurreko ostiralean. Aski ezaguna zen negozioa eta, hein berean, Pablo eta bertako langileak ere bai. Sukaldaria jaki goxoak prestatzen maisu bilakatu zen, herrikideentzat eta inguruko indutriguneetako langile askorentzat erreferentziazko gune izateraino.



Pablo, sukaldean lanean. BURUNTZA

Sukaldaritza tradizionalaren ordezkari paregabeak

Eguneko menua, nahiz menu bereziak kalitate handikoak ziren. Miren Argi Weill Pabloren bikotekideak, Aiurriri eskaintako elkarrizketa batean, bikain azaldu zuen beren xedea: "Bertako produktuekin landutako sukalde tradizionalagatik nabarmendu izan da Buruntza

betidanik, eta ez diogu uko egiten horri. Buruntzaren ezaugarri propioa da hori!".

Bazkaritan, eguneko menua eskaintzen zuten, batik bat. Bazkalostean, ez zen mus partidarik falta izaten, eta Pablo ez zen urruti ibiltzen. Jokoan edo ikus-

le modura, jokaldiei beti adi-adi zebilen. Zaletu amorratua zen.

Auzoari bizitza ematen zion negozioaren arduradunak ziren Barrutia eta Weill. Ostiral arratsaldetan eskaintzen zuten pintxo-poteak, esaterako, auzotar askoren arreta bereganatu zuen. Bazkardo, Buruntza, Arantzibia eta Leizotz aldeko bizilagunak ere hurbiltzen ziren, asteburuari hasiera emateko.

Pizzak eskaini zituzten garaian ere, lana erruz egiten zuten.

Aste barruan, menuak. Eta, asteburuetan, eskaintza berezia. Makina urtebetetze, bataio, jaunartze eta enpresako bilkurak egin ziren jantokian.

Pertsona atsegina

Pertsona atsegina eta gertukoa zen Pablo, sukalderaino sartzeko gonbita luzatzen zizun horietakoa.

KIOSKOA**CRONICA VASCA, EL ESPAÑOL** EGUNKARI DIGITALA**MLC petrolio-enpresak Espainiako kamioi-gasolindegirik handiena irekiko du maiatzean Urnietan**

Linaresen sorburua duen Martin Lopez Carburantes (MLC) enpresak Urnietako herria goitik behera irauliko du. Maiatzean, petrolio-markak Espainiako kamioi-gasolindegirik handiena jarriko du jendearen eskura, eta 22.000 metro koadroko azalera izango du, hau da, hiru futbol-zelaiaren baliokidea. Zerbitzuguneak hotel bat eta jatetxe bat ere izango ditu. Hori guztia, 14 milioi eurotik gorako balioarekin, sektore honetan Euskadin egin den inbertsiorik handiena da.

Urnietan 12 tanke biltegitratzeko gaitasuna izango du, guztira 1.330.000 litro erregai, eta 24 kamioi aldi berean erregaiz bete ahal izango dira. Lehen aipatutako zerbitzu guztiez gain, kamioientzako aparkaleku segurua du, 40 plazarekin, turismoentzako 60 aparkalekurekin, auto elektrikoak kargatzeko plazekin, dendarekin, garbitegiarekin, kafetegiarekin, gimnasioarekin, dutxekin eta bezeroentzako erlaxatzeko gunearekin.

Hasiera batean, proiektua planifikatuta zegoen gasolindegia martxoan prest egoteko, baina azpiegitura egiteko "denbora gehiago" behar izan dute eta, azken asteetan, "abiadura handian" egin dute aurrera. MLCtik esan digute "pausoz pauso" joatea erabaki dutela "daukagun proiektu garrantzitsuenetako bat" fabrikatzeko.

Establezimendu berri hori irekiz gero, 30 lanpostu sortuko dira gasolina-zerbitzugunearen 22.000 metro karratuak hartzen dituzten sailetarako.

Jardunaldia, Urnietan

Desgaitasuna duten eta ez duten haur eta gazteei zuzenduta, Urnietan topaketa antolatuta zuten Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioak. Urnieta Kirol Elkartearen laguntzarekin, 8 urtetik gorako dozenaka haur eta gaztetxo elkartu zen futbol-zelaian. Beste errealitate batzuk barneratzeko eta kirol egokitu gertutik ezagutzeko aukera izan zuten partaideek.





Aurtengo saridunak Segurado alkatearekin, Artola zinegotziarekin, Enparantza aurkezlearekin eta Arteaga kantariarekin. AIURRI

Antia sariketa

Aurreko ostiralean egin zuten sari banaketa-ekitaldia, bi gonbidatu berezirekin: "Irabazi Arte" telesailiko Sua Enparantza eta Danel Arteaga kantaria. On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketaren XXX edizioan parte-hartze handia izan da

Erredakzioa URNIETA

Honako hauek sarituak:

Sarituak, gazteak:

- Iruñe Mateo Hernandez: "Zoriontasunaren bila".
- Janire Pacheco Ubillos: "Ametsen eta sekretuen artean".

- Axel Cuenca Martinez: "Liburuaren eta balen artean."

Sarituak, haurrak:

- Izaro Arrieta Etxeberría: "Perez sagutxoaren hortz egokia".
- Elaia Zaldua Lizeaga: "Mielen magia".

- Maia Kortaxarena Gurrutxaga: "Bahiketa".

Jendetza elkartu zen sari-banaketa ekitaldia ikusteko. Bideo osoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean.

"Udan egingo dugu laugarren denboraldiaren grabaketa"

SUA ENPARANTZA AKTOREA ETA DANTZARIA

"Irabazi Arte" amaitu berritan, Antia sariketa aurkeztu zuen

Jon Ander Ubeda URNIETA

Oholtza gainean ibiltzera aski ohituta egoteaz gain, gustura eta eroso dabil kamera aurrean: hiru denboraldiko ibilbidea osatu du "Irabazi arte" telesailan. **Orain gutxi amaitu da "Irabazi arte" telesailaren denboraldia, amaiera ireki samarrarekin. Horrek zer esan nahi du? Egongo al da jarraipenik?** Bai, primizian, jarraipena izango du eta udan egingo dugu laugarren denboraldiaren grabaketa. Ez dakit gauzak itxiko

diren ala horrela jarraituko duten. Ez didate uzten ezer esaten. Hiru gidoi, hiru kapitulu ditut eta ez dakit ezer gehiago. **Orain irribarretsu zaude, denboraldi honen amaiera partean ez bezala. Zer esaten dizute etxekoek?** Zertxobait aldatzen naiz bai, nire egunerokoa oso pertsona irribarretsua naizelako. Aldiz, telesailean, negar pila egiten dut. Anaia Bartzelonan bizi da eta esaten dit tarteka ez duela jarraitzen telesaia, ez baitzaio

gustatzen ni horren triste ikustea, nahiz jakin antzeztua dela. Etxean, bestela, grazia puntu bat ere topatzen diote.

Beste modu batean ikusiko al zaitugu datorren denboraldian?

Nik neuk ere ez dakit oso ondo. Espero dut koman ez egotea, eta pixkanaka ibiltzen hastea, baina ez dut informazio handirik! **Hiru denboraldirekin, egonkortu da telesaila. Geroz eta presio handiago sentitzen al duzu?**

Agian nik neure buruari jartzen diodan presioa da gehiago, maila eman behar dudala sentitzen dudalako. Zain dago jendea, zerbait espero dute gugandik, eta batek baino gehiagok, nolabait, idolatratu egiten gaitu. Hortaz, lana ondo egin nahi izateko presioa jartzen diot neure buruari.


Gipuzkoa Bertsotan txapelketan abiatu da "Anatx" urnietarra

Guztira, 307 puntu eskuratu zituen joan den ostiralean, Gabirian izandako saioan

Erredakzioa URNIETA

Murgildu da, jada, Urnietako Andoni Mujika Izagirre **Anatx** Gipuzkoa Bertsotan txapelketan: Gabirian izan zen kantatzen, estreinakoz, joan den hilaren 26an, ostiralarekin: orotara, 307 puntu lortu zituen, Maider Arregi Markuleta bertsolari oñatiarrak irabazitako saioan. Txapelketa hasi bezperako egunetan Aiurri adierazitakoaren arbera, bere burua pixka bat estutzeko asmoa duen arren, "bertsotan egiteko plazerez" ekin dio Mujikak udaberriko lehiari.

Hasierako agurraren ondoren, zortziko nagusian aritu zen mikrofona aurrean, ondoren, hitzorduko txapelduna bilakatuko zenarekin errima-jolasean. 2024ko Olinpiar Jokoetan Espainiako Selektzioaren deialdiari uko egiten dion kirolari profesional baten roletik aritu zen kantuan, jarraian, zortziko txikiaren doinuari Aitor Tatiegi Loidirekin batera abesteko: "Zu, Aitor, goi mailako sukaldaritza ikasketak egiten ari zara, eta Andoniren jatetxera etorri zara praktikak egitera. Tipula txikitzen jartzen zaitu egunero". Beranduago, bakarkako lanei eutsi zien. Puntu-erantzunetan



"Anatx" urnietarra. AIURRI

aritu ostean, bide eman zion ganbarako gaiari: "Gaurkoan ere deika eta deika ari zaizu ama. Ez diozu telefonoa hartu nahi".

Saioa borobiltzeko, eta amaierako agurraren aurretik, hamarreko txikian aritu zen Uxue Fernandez Lasarekin, Garbiguneko langile baten azaletik mintzatuta, "konturatu zarete jendeak ekartzen dituen gauza asko egoera onean iristen direla".

Lagunen eta ezagunen saioak entzutea tokatzen zaio orain, eskuratutako puntuazioaren arabera izango baita sailkapena.



Sua Enparantza. AIURRI

Garbi al daukazu aurrerantzean aktore-lanetan jarraitu nahi duzula?

Orain arte ez neukan batere garbi, orain arte dantzan aritu

izan naizelako, baina, aurtan, bai. Uste dut, lehen aldiz, asko gozatu dudala grabaketan, baita negar egiteko eszenetan ere. Seguru sentitu naiz. Horrela, beste gauza batzuk probatzeko gogoz nabil.

Horien artean, Antia literatur lehiaketa aurkezteko hurbildu zinen Urnietara.

Ohituta nago oholtza gainera igotzen. Tarteka, egin izan ditut horrelako "lantxoak", baina ez dut neure burua horrelakoetan, soilik, ikusten.

Zer esango zenieke zure telesailaren jarraitzaile guztiei?

Ikusten jarraitzeko. Espero dut, ikusleen gustukoa izatea datorrena ere. Zuegatik ikusleengatik gaude hemen lanean, hortaz, mila esker!



Irunberri elkarteko hainbat kide igo ziren Zubiaurrera, pregoian parte hartuz. AIURRI

"Irunberri kultur elkarteak eta Santakruzak beti egon dira elkar lotuta"

Hasi da festa, Andoainen. Arratsaldean ekin zioten haur eta gaztetxoek, Zumea plazan irakurritako haur pregoiarekin. Iluntzean, Zubiaurre etxean, Irunberri kultur elkarteak eman zion hasiera jaiari. Alboan ziren Lebiton konpartsa eta Zumeatarra danborrada

Erredakzioa ANDOAIN

Abiatu dira Santakruzak, ohikoa den pregoiaren irakurketarekin eta jaien hasierako suziarekin. "25 urte bete dira Irunberri elkarteak sortu genduela, esfortzu handiarekin eta garai zailetan, baina elkarlanean aurrera egin genuen. Beti argi izanik gure lehentasuna herria eta herritarrak izan direla". Irunberri elkartekoek hastapean gogoan hartu zituzten, Zubiaurre etxetik irakurritako pregoiaren hasieran. Eta, segidan, urteotan guztietan defendatuta-

ko baloreak aipatu zituzten, hitzez eta keinuz. Hitzez, balio horiek aipatuz. Eta, irudiz, balio bakoitzari lotutako oihala hazituz. Aurkezpen korala izan zen, kolektiboa ordezkatzeko dutela sinbolizatuz. Kulturaren eta euskararen aldekoa, ekologismoa eta feminismoa sustatzen dituen; gazteen eta pentsiodunen gertukoa eta mundu zabalera herri zapalduen eta presoena eta senideen alde agertu dena.

"Irunberri eta Santa Krutz jaiak hasiera-hasieratik egon dira elkar lotuta: parte hartuz,

lan eginez eta jaiak ospatuz". Izan ere, elkarteak da Jai Batzordearen bileren bilgunea. Eta, askoren artean, elkarte gastronomikoen arteko bakailao txapelketaren antolatzaile da.

Pregoiarekin amaitu aurretik eskertza adierazi zuten bazkideei, boluntario eta laguntzaileei eta jaietan lanean ari diren guztiei: "Guztiok gara jaiaren parte! Jarrai dezala Irunberri kultur elkarteak bilgune eta erreferente izaten, jaietan ere bai!".

Ohi bezala, jendetza elkartu zen Zubiaurreko inguruetan.

Haur pregoia, Zumea plazan



Eguneko lehen pregoia haurren izan zen. AIURRI





Olagain Udal Txistulari Elkarte eta gonbidatuak, emanaldia amaitu eta gero. AIURRI

Jaien hasierako emanaldi berezia

Olagain Udal Txistulari Elkarteak jaietako emanaldi berezia egin zuen, elizan. Iñaki Eizmendi abeslaria, Loatzoko txistulari gazteak eta Jurgi Errandonea Euskal Herriko bikote gazteen dantza solteko txapelduna izan dira aurtengo gonbidatuetako batzuk



Iñaki Eizmendi. AIURRI



Jurgi Errandonea. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN
Santa Krutz jaien hasierarekin bat eginez, emanaldi berezia eskaini zuen Olagain Udal Txistulari Elkarteak. Ez ziren bakarrik aritu, gonbidatu bereziak izan zituztelako alboan:

- Aingeru Zabala eta Edorta Setien tronpeta-joleak
- Andoni Gonzalez akordeoi-jolea.
- Lier Sarasola kaxoi-jolea.
- Javi Gestoso gitarra-jolea.
- Joxema Setien baxua.
- Loatzo Musika Eskolako Alexander San Sebastian, Clara

Larrañaga, Izaro Imaz, Mikel Satrustegi eta Aiert Iraola txistulariak.

- Iñaki Eizmendi abeslaria.
 - Jurgi Errandonea Oreja dantzaria aritu zen.
- Errepertorio aberatsa**
- Ohorezko kontrapasa (Sarriegi; Jose Ignazio Ansorenak moldatuta).
 - Hiru kanta (Iparragirre, Jose Ignazio Ansorenak moldatuta).
 - Txoria txori (Mikel Laboa).
 - Txori kantak (Bonifazio Lascurain).

- Humboldt zortzikoa (Jose Ignazio Ansorena).
 - Migerlea tangoa (Sabin Bikandi).
 - Baltzen potpourria (Xabier Zabala).
 - Erre zenituzten (Xabi Solana).
 - Larra erdian (Iñaki Eizmendi, A. Amezaga).
 - Ene maitea nauzu (Iñaki Eizmendi, X. Zabala).
 - Santa Krutz Martxa (Eulogio Saldias).
- Emanaldiko argazkiak eta bideoak Aiarri.eus webgunean ikusgai daude.



AIURRI

Zumeatarra danborrada

Jaietan kalez kale irteten den lehen danborrada Zumeatarra elkarte da. Ohi bezala, elkartean bertan egin zuten lehen saioa eta, ondoren, Zubiaurre etxera hurbildu ziren. Kalejiran Kaleberriarantz abiatu ziren eta afaldu aurretik Sarri Sarri pieza eskaini zuten elkartearen kanpoaldean.



AIURRI



AIURRI



Sari-banaketa ekitaldian elkartu ziren onenak. AIURRI



Aitor Etxeberria irabazlea, helmugara iristen. AIURRI



Helmugaratzeko uea pozgarria da lasterkari guztientzat. AIURRI

Herri-krosa, euripean

200 lagun inguru irten ziren Santa Krutz jaietako herri-krosean, euriak baldintzatu zuen lasterketa osatzera. Hamar kilometroko distantzian, lasterkariek ikusleen animoak jaso dituzte. Tartean, nola ez, gautxoriena

Erredakzioa URNIETA

Hauexek dira podiumera igo ziren lasterkariak:

Emakumezkoak:

1. 39:51 Eguzkiñe Zabaleta.
2. 41:07 Jone Galan Monfort.
3. 41:18 Leire Rajado Lopez.

Beteranoak:

1. 41:26 Lourdes Colomo Artola. Andoaindarrak:
1. 47:40 Ainara Leibar Porcel.
2. 48:49 Paula Sanchez Sanchez.
3. 51:31 Ana Talavera Leal.

Gizonezkoak:

1. 31:34 Aitor Etxeberria Mujika.
2. 32:30 Mustapha Archaqui.
3. 32:49 Aitor Regillaga.

Beteranoak:

1. 35:35 Javi Rodriguez Barriga. Andoaindarrak:
1. 34:00 Aritz Mujika.
2. 34:30 Javier Lazcoz Dominguez.
3. 37:08 Unai Barrio Fochez.

Haur lasterketa, helduen ostean



Argazki-bilduma ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. AIURRI



Animoak jaso zituzten lasterkariek, proba osoan. AIURRI



Argazki gehiago ikusgai Aiurri.eus webgunean. AIURRI



AIURRI

Lebiton konpartsa, jaien hasieran

Plaza Morean elkartu ziren Lebiton konpartsa kideak, astearte arratsaldean. Zumea plaza ingurutik gaztetxo ugari hurbildu zen, haurren pregoia amaitu eta berehala. Izan ere, haur eta gaztetxo askoren arreta bereganatzen dute erraldoiek eta buruhandiek.

Talde polita osatu dute Lebiton konpartsa kideak, azken urteotan. Argazkian ikus daitekeenez, adin-tarte ezberdineko partaideak elkartu dituzte. Zorionez, kalejiran irteko eguraldia lagun izan zuten, euriarekin nekez aterako ziren-eta. Kale Nagusian behera jaitsi ziren Zumea plazara iritsi bitarte, emozioz beteriko uneak osatuz.

Lebiton konpartsa Zezen-suzkoa aterako du jaietan, birritan. Maiatzaren lehenean irten zen, lehen aldiz. Eta, igandean, jaietako amaiera emanez, bigarren eta azken saioa egingo dute. Gaueko 21:45tan hasita.



AIURRI

Santa Krutz Harri Txikia

Aurtengo jaietakoa hirugarren edizioa izan da eta aurreko edizioetan bezala, ikusmina sortu zuen hitzorduak. Pregoa amaitu eta berehala ematen zaio hasiera herri-kirol probari. Metro gutxiko tartea dago Zubiaurre etxearen eta txosnagunearen artean. Beraz, askotxo izan ziren herri kirolarien balentria ikustera hurbildutakoak. Giro ona nagusitu zen, eta zaleetuek gogotik txalotu zuten parte-hartzaileen kementa.

Unai Urruzola eta Ane Otamendi izan ziren hirugarren edizioako irabazleak.

Palmaresa

Hiru edizio eginda, hauexek urte bakoitzeko irabazleak:

2024:

Ane Otamendi.
Unai Urruzola.

2023:

Leire Otermin.
Iñaki Altzuguren.

2022:

Leire Otermin.
Aritz Otermin.



Gautxorien bilkura, Espigoian, asteazken goizean

Ateri zegoen asteartean, baina hurrengo orduetan giroa nahastuz joan zen. Goizaldean euria gogotik ari zuen. Ostera, euria ez zen oztopo izan parrandazaleentzat, eta, are gutxiago, gautxorientzat. Asteazkenean, goizeko zortziretzan eta txarangaren laguntzaz, Espigoirantz hurbildu ziren kalean zebiltzan gautxori gehienak. Ondo baino hobeto ekin zioten maiatzari herrian, saltoka, blai, baina datozen egunek dakartenaz gozatzeko prest.



AIURRI



AIURRI

Arrixku eta Gozo Gozo taldeak

Santa Krutz jaietako kontzertuen artean, lehena herriari lotutako taldeen eskutik iritsi zen. Biak ere bertsioak eskaintzen trebatu ziren. Gozo Gozo taldearentzat agur esateko aukera izan zen. Datozen egunetan talde ugari ikusteko aukera izango da. Ostegunean, Kaparrak taldea; ostiralean, Nikotina eta Hofe x 4:40; eta, larunbatean, DJ Fresa Morango eta Muxutruk.



AIURRI



AIURRI

Gune Morea, jaietan

Emagin elkarteko kideak Gune Morean ari dira lanean. Erretore etxearen atzealdeko lokalean daude, egunotan. Iluntzeko 20:00tik goizaldeko 08:00etara. Informazioa emateko balioko du Gune Moreak, eta erasoak jasoz gero, bertara joateko. 676 567 724 telefono zenbakia prest dute, nahi duenak deitzeko.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



**Santa Krutz jaien
atal berezia webgunean**

Albisteak, deialdiak, egitaraua

SANTAKRUTZAK '24

Jaietako pregoilariak 1994 eta 2024 urteen artean

Eredakzioa ANDOAIN

Norbanakoak eta elkarteak izan dira jaien hasierako protagonistak.

- 1994 Mikel Iradi.
- 1995 Pedro Jauregi.
- 1996 Aitor Mendiluze.
- 1997 Ixiar Etxeberria.
- 1998 Luxio Aranburu.
- 1999 Pako Etura.
- 2000 M.Sorkunde Etxezarreta.
- 2001 Ixiar Oreja.
- 2002 Luis Mari Arnaiz.
- 2003 Xabier Lekuona.
- 2004 Nagore Zipitria.
- 2005 Pako Arnaiz.
- 2006 Juanma Barcina.
- 2007 Maria Jesus Fernandez.
- 2008 Pedro Unanue.
- 2009 Ramon Ansa.
- 2010 Joxean Barandiaran.
- 2012 Olinpiapopularrak.
- 2013 Urki dantza taldea.
- 2014 1964ko emakumezko danborjoleak.
- 2015 Auzoko dendariak.
- 2016 Katramila antzerki taldea.
- 2017 Txindoki taberna.
- 2018 Maiatzaren 3ko bluxadunak.
- 2019 Aiurri.
- 2020 -.
- 2021 -.
- 2022 Zumeatarra elkarte.
- 2023 Auzoetako Jai Batzordeak.
- 2024 Irunberri elkarte.



“Kalitatea eta irudimena ziurtatuta daude Artisau Azokan”

Andoingo Artisau Azoka “kalitate eta ospe handiko artisauek osatuko” dutela aitortu du antolaketan dabilen Amaiur Etxebarria Crespo Andoingo gazteak. Makina bat ahalegin egin ditu, azken hilabeteetan, azoka guztiz erakargarria izan dadin



Amaiur Etxebarria Crespo Andoingo joskina. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Datorren maiatzaren 4an, larunbatarekin, goizeko 10:30ean irekiko dute azoka Zumea plazan, eta bezeroek eta herritarrek edukiko dute zer ikusia eta zer errosia bertan.

Amaiur Etxebarria bera artisaia izanik, ongi asko ezagutzen du mundu hori, eta ziurtatu du herritarrek produktu anitzak eta irudimentsuak topatuko dituela plazan. Artisau multzoa banan bana aztertzen hasita, kalitatea eta aniztasuna nabarmendu nahi izan du Etxebarriak: “Eskulangintzan formazio eta eskarmentu handia daukaten artisauek Andoainera ekartzen saiatu gara, eta hori lortuko dugula esango nuke. Ezaugarri ugari aipatuko nituzke, eta denak dira baloratzeak: originaltasuna, benetakotasuna, aniztasuna... Oso pertsonalak dira, artista hutsak dira egiten duten horretan, eta horretaz gain, jendartekoak dira, bada-kite publikoarekin modurik naturalenean konektatzen, bada-kite beren sortzaile sena transmititzen”.

Artisau izatearen ofizioa (irudimenaren lanketak, eskulangintza, bezeroarekin aurrez-aurreko salmenta zuzena...) barne-barnetik bizi duten artisauek Andoainera datozela adierazi du Etxebarriak. “Bizi-filosofia eta bizimodu bat partekatzen dugu; hori oso garrantzitsua da.

Artisautza, umetatik

Amaiur Etxebarriak ume-umetatik bizitu izan du artisauek azokan giroa. “Hogei urte ditut, eta esango nuke bizi guztia daradama azokaz azoka, alde batetik bestera. Izan ere, ama ere artisaia dut eta harengandik jaso dut grina hori, bizitzeko estilozat jo daitekeena”.

Horrela, Etxebarriak aitortzen du egundoko ilusioa egiten ziola bere herrian bertan azoka indartsua antolatzea, jai egitarauaren ekitaldi betegarri ez baizik eta etorkizunean erreferentzia bilaka daitekeena bere kalitateagatik. “Ideia horretxek mugitu ninduen orain hilabete batzuk abentura honetan sartzera. Gogorra izaten ari da antolaketako hari guztiak jostea, baina merezi izan duela iruditzen zait. Beraz, azoka bi-

sita dezaten gonbitea luzatzen diet andoaindarrei, ea zer nolako inpresioa hartzen duten”.

Zehazki, Etxebarria joskintzan trebatu da, eta hortik abiatuta, makina bat produktu zabaltzen ditu merkatuan egun, Rbelde markarekin (Instagramen, @rbelde). “Neuk diseinatzen ditut guztiak. Patrioiak sortu, eta zerotik hasita josten ditut. Deneratiko produktuak egiten ditut, konplementu edo osagarri deitzen direnak, apaingarriak...”.

Haurrentzat, gune berezia

Haurrei begira azokan aparteko txokoa bat prestatu dute 12:00etatik 14:00etara, eta bertan, haurrek eskulangintzetan murgiltzeko aukera edukiko dute; besteak beste, aurpegi-margoketa, txapak egitea, kalkomania, globoflexia...

Piraten unibertsoa izango dute gai nagusizat eskulan horiek.

Bestalde, musika zuzenean izango da, Joxune taldearekin, 12:00etatik aurrera.

20 artisau

Hogei artisauek osatuko dute Zumea plazako azoka. Instagramen @andoingo.azoka kontuan artisau horien auzuek gain, hainbat xehetasun agertzen dira. Hona nortzuk diren:

- Lioka (modako osagarriak, maskotak).
- Marapilo (makrame).
- Lok.atz (buztina).
- Ketzalak (egurrarekin artelanak).
- Koloreztatu (kosmetika naturala).
- Akna (aire-goagarriak).
- Kikuxa (imitaziozko bitxiak).

• Xolearte (errestaurazioa eta esku-lanak).

- Saio.art (akuarelak).
- Josune makrame (makramea).
- Toñi (kakorratzak).
- Poxtiñeneko gazta.
- Spoon project (whittling, labanaz zura zizelkatzea).
- R.ebelde (joskintza).
- Santana tailerra (berziklatutako materialarekin eskulanak).
- La txika de la cerveza.
- Sualma jostailuak (egurrezko hezkuntza-jostailuak).
- Brotes verdes.
- Helena Agell (estanzazioa, enkuadernazioa...).
- Atalaya (eztia).

Gainera, Aita Larramendi ikastolako gurasoek Kilometroak 2024ren aldeko mahaia ere ipiniko dute azokan.



andoainDARRA
euskaraz

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

Ansa II, Loitegi eta Arruti, Sagardoaren txapelketan

Oialume Zar taldeko kide izango da Julen Loitegi, Barrenetxea IVrekin bikotea osatuz. Ansa-Zubiri, berriz, Petrítegi taldearekin ariko dira. Igor Arrutik, bestalde, Petrítegi taldeko kapitain lanetan jardungo du, Segurola-Larrañaga bikoteari laguntza emateko prest



Ansa. ORIAMENDI



Loitegi. ORIAMENDI



Arruti. ORIAMENDI

Erredakzioa URNIETA

'Sagardoaren Erremonte txapelketa 2024' aurkeztu berri dute, Orona Fundazioaren Areto Nagusian. Partida guztiak, gainera, ETB1eko "Erremontari" saioan eskainiko dira. Sei bikote lehiatuko dira, datozen asteetan. Haien guztien artetik, bi urnietar: Ansa II eta Loitegi.

Bikote bakoitzak sagardotegi bat ordezkatu du eta, aurten, berrikuntza nabarmena izango da. Talde bakoitzak kapitain bat izango du. Hauek dira bikoteak: Urriza-Martirena (Aburuza sagardotegia); Loitegi-Barrenetxea IV (Oialume Zar); Aldabe-Juanenea (Gurutseta); Segurola-Larrañaga (Petrítegi-); Ansa II-Zubiri (Bereziartua); eta Ezkurra II-Azpiroz (Alorrenea).

Ostegun honetan hasita

Lehenengo fasea ostegun honetan hasiko da, maiatzak 2. Zazpi jardunalditan denek denek aurka jokatuko dute. Ostegunero, ekainaren 13ra bitarte, hitzordua izango da Galarreta Jai Alai pilotalekuan. Zehazki maiatzaren 2an, 9an, 16an, 23an, 30ean, eta ekainaren 6an eta 13an.

Set formatuan jokatuko dira partidak eta 2-0 irabazten duenak 4 puntu batuko ditu. 2-1 irabaziz gero, 3 puntu; 1-2 galduz gero, puntu bat; eta, azkenik, 0-2 galduta ez da punturik batuko. Gainera, lehen bi seten artean 15 tantora iristen ez denari puntu bat kenduko diote.

Lehenengo lau postuetan sailkatzen direnak finalurrekoa jokatuko sailkatuko dira. Bi bikoteen artean berdinketa batego, euren arteko partidak erabakiko luke sailkapeneko postua. Eta gertatuko balitz hiru bikoteren arteko berdinketa, euren arteko partidaren arteko tanteoak erbakiorrak izango dira.

Finalurrekoa eta finala

Finalurrekoa partida bakarera jokatuko da, ekainaren 20an. Finala, berriz, ekainaren 24an.

Partidak ikusteko aukera, Aiurriren eskutik

Oriamendi eta Aiurriren arteko hitzarmenari esker, partidak ikusteko sarrerak eskainiko ditu Aiurrik. Interesa izanez gero, bidali whatsapp mezua 619 16 35 37 telefono-zenbakira.

ABURUZA
URRIZA - MARTIRENA

OIALUME ZAR
LOITEGI - BARRENETXEA IV

BEREZIARTUA
ANSA II - ZUBIRI

ALORRENEA
EZKURRA II - AZPIROZ

SEGUROLA - LARRAÑAGA

ALDABE - JUANENEA

ERREMONTARI

SAGARDOAREN TXAPELKETA

2 0 2 4

L I G A X K A | F I N A L E R D I A | F I N A L A

Maiatzak 2-9-16-23-30 | Ekainak 20 | Ekainak 24

Ekainak 6-13

Eskuratu zure sarrera oriamendi.euz-en

ORIA MENDI | ERREMONTA BIZIRIK | Hernaniko Udala | Euzko Lehiaketa | EUSKALDE | EL GIARRO VASCO | Orona | AIURRI

IRITZIA | ITALIAKO GIROKO KRONIKAK, AIURRI.EUS WEBGUNEAN

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Garailea erabakita dago

Tadej Pogacar da Giroa irabazteko favoritoa, eta ez da esloveniarrari maglia arrosa kenduko dion aurkaririk sumatzen; ibilbidea ikusgarria da, urtero bezala

Iraganean gutxitan gertatzen zen itzuli handi baten bezperan lehiaketa nork irabaziko zuen jakitea, favorito nagusi edo bakar nor zen aipatzea. Miguel Indurain handiarekin gertatu zen aspaldi. Azken urteetan Jonas Vingegaard eta Tadej Pogacar dabilta nor baino nor itzuli handiak irabazteko borrokan, batez ere Tourra, baina esloveniarrak Giroa eta Tourra korritzea erabaki du aurten, biak irabazteko asmoz. Tourrean zer gertatuko den ez dakigu, oraindik, batez ere Vingegaard bikingoa garaiz osatuko den ez dakigulako, momentuz. Giroan zer gertatuko den, ordea, jakina da. Zeruak eta lurak bat egin beharko lukete UAEko oilarrak besoak garaile ez jasotzeko Erroman hiru aste terdi barru.

Garaipen zerrenda ikaragarria pilatu du urteko lehen lau hilekoan: Strade Bianche, Kataluniako Volta, Liege-Bastogne-Liege... eta denak hanka batekin. Hainbestekoa izan da bere nagusitasuna, apustu etxeetan bigarrenari zenbaterako tartea aterako dion galdetzen dutela. 22 egunetan gauza asko gerta litezke: katarro bat, beherakoa, erorketa bat... baina gaur-gaurkoz ia ezinezkotzat jotzen da Pogacar-ek Giroa ez irabaztea.

Ibilbidea oso aldeko du, baina ibilbidea bat edo beste izan, Pogacarrek nahieran txikitu izan ditu aurkari guztiak: gorantz, beharantz, ordekan, maldan gora... Ezin esan erlojupekoan espezialista peto-petoea denik, baina herrena ere ez, eta 71 kilometro on ditu lasterketa txikitze. Geraint Thomas, INEOS taldeko galestarra da



Pogacar eta UAE, iaz, Frantziako Tourra Andoainera iritsi zenean. AIURRI

bakarkako lanean haren pare ibil daitekeen bakarretakoa, baina Thomas adinean gora doa, eta 38 urte beteko ditu Giroa bukatu bezperan.

Litekeena da Pogacarrek erlojupekoetan Giroa ez haustea erabat; igoeretan ere ahalegintzea. Eta alor horretan nahi beste terreno edukiko du proba hankaz gora jartzeko. Egia da Pogacar ez dela inoiz Giroan aritu. Alpeak ezagutzen ditu, Tourretik, baino Dolomitak ez. Aurkarietako halako nagusitasuna erakusten denean, ordea, ezagutza falta hori garrantzitsua ote da? Ziur aski ez. Esloveniarrak sekulako aldearekin irabaz dezake Giroa, baina mingain gaiztoek diote ahalik eta energia gastu txikiena egiteko asmoa duela Giroa poltsikoratzeko bidean, eta Tourrera bete-betean iristeko.

Zazpi txirindularik lortu dute historia osoan urte berean Giroa eta Tourra irabaztea, eta horietako azkena Marco Pantani handia izan zen, 1998an. Beste seiak izen handiak izan dira: Indurain, Hinault, Roche, Merckx, Anquetil eta Fausto Coppi. Pogacarrek lorpen hori begiz jota omen du, eta mende laurden geroago, bere legenda

are gehiago handituko lukeen lorpena da. Erronka horri begira funtsezkoa da Giroa eroso antzean irabaztea.

Eta zer ikusten, sumatzen da Pogacarren besapean? Gauza gutxi, eta apustu ziur gutxi. Errespetua zor zaio Thomas-i, hiru aste itzulietako gerra beteranoa. Eutsi eta eutsi, ohorezko postu asko lortu izan ditu, eta badaki zer den itzuli handi bat irabaztea. Romain Bardet ere bere kirol ibilbideko azkenetan da, baina ausarta da, eta podiuma egiteko bidean askoren hanka zuztarrak erre ditzake. Cian Uijtdebroeks belgikarra hazi eta hazi ari da etengabe, eta Vingegaard nagusiaren morrontzarik gabe oso goian ibil daiteke. Bide batez, bere abizena ahoskatze, honela esaten da, berak publiko eginda: Ejtdebruks.

Kinieletarako, beste hainbat izen apuntatu: Ben O'Connor, Antonio Tiberi, Daniel Felipe Martinez, Arensman, Caruso, Giulio Ciccone edo Juanpe Lopez. Horien artean ez dagoen bakarren bat azalduko da, ziur.

Ibilbide ederra

Partaideak partaide, Giroak egutegiko probarik erakargarrienetakoa izaten

jarraitzen du zaleen begietara. Ibilbidea oso polita da; mendi handi eta malkar ikusgarriak daude, aldapa laburreko bukaera gaiztoak, erlojupekoak... Vueltak ez dauka Italiako Alpeak eta Dolomitak berdintzeko aukera geografikorik, eta Tourrean ere mendateak luzeagoak eta etzanagoak izateko joera izaten dute. Giroak 71 kilometro ditu erlojupekoan, kilometro asko, baino horietan irabaz daitekeena gal daiteke mendiko etapa bakarrean, tabloiren bat harrapatuz gero. Aurten ere antzera gertatuko da.

Eta goiz gerta liteke, Giroa arriskutsu hasiko baita, Piamonteko lurretan, Italia iparrean. Lehen etapak bukaera bihurria du, bigarren mailako mendate batekin, eta kilometro eta erdiko horma %10era helmugatik hiru kilometrorra. Bigarren egunean gogortasun gehiago, Oropa Santutegian bukatuko baita etapa. Indartsu, sasoi puntu onean iristen ez denak muturreko handia har dezake lehen asteburuan. Ez ahaztu Piotr Ugrumov-ek Miguel Indurain handiari Oropan eman zion susto galanta!

Lehen aste osoak ostiral eta larunbatean izanen ditu egun garrantzitsuak. Ostiralez Foligno eta Perugia arteko erlojupekoa korrituko da. 40 kilometro luze, eta azken seiak malda gora leunean. Diferentzia handiak egingo dira egun horretan. Biharamunean Apeninoetako Prati di Tivo gainean bukatuko da etapa, Tirreno-Adriatico itzulian igo zuten mendate pikoa. 14 kilometro da luze, eta %7ko batez besteko malda du. Mendate serioa da.

Bigarren astea erabakigarria izango da. Asteartean Cusano Mutri gainean bukatuko da etapa, lehen mailako mendate luzea. Larunbatean Giroko bigarren

erlojupekoa iritsiko da, hau ere luzea eta laua (31 kilometro). Eta hirugarren igandean, Giroko etapa gogorrena: Monerbo di Garda-Livigno, 222 kilometro eta 5.700 metroko desnibel metatua guztira. Mortirolo gaina pasako dute helmugatik 70 kilometrorra, alde errazetik, eta ondoren Foscagno luzea eta Mottolino, biak 2.000 metrotik gora. Azken gainak %19ko maldak ditu.

Bigarren astelehen atseden eguna ondo baliatu beharko du tropelak, azken astean ez baita zailtasuna murriztuko. Asteartean Stelvio handia, parerik gabekoa igoko da etapa hasieran, eta helmugatik urrun egonda ere, mina egingo du, 2.758 metroraino igotzea ez baita txantxetakoa. Etapa horrek 202 kilometro ditu, eta Santa Cristina Val Gardenan bukatuko da, aurrez Passo Pinei luzea pasa ostean. Lauzabost kilometroko jaitsiera laburra izan ezik, 31 kilometroko etenik gabeko igoera da Santa Cristina, eta azken bi mila metroek %11.8ko batez besteko malda dute.

Asteazkenean beste mendate razio bat Dolomitetan. Passo Sella hasteko, Piz Boe ikusgarriaren magalean egiten den igoera ederra (3.151 metro). Passo Rolle eta Passo Brocon dira eguneko menuko beste bi mendateak, Brocon bi aldiz (12 km. luze, %6.6ko batez besteko malda). 4.000 metroko desnibel metatua du. Bassano del Grappako etapa, azken koska. Bailaran bukatzen da, baina bitan igoko dute mendate ezagun hori. Zenbaki hotzei erreparatuta, Bassano da Giroko mendate tentsuena: 18.1 kilometro eta %8.1eko batez bestekoa. Handik Erroma hiriburura egingo du bidaia tropelak, zigortutako giharrak samurtzeko. Non hobe, Italiako hiriburuko Coliseum erraldoian baino.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

IGANDEA 5

URNIETA Antzerkia

Marie de Jongh konpainiaren "BO Jauna" antzezlan. Keinu bidezko antzerkia da, testurik gabe eta maskaraduna.

17:30, *Sarobe*. 3 euro.

ASTEAZKENA 8

ANDOAIN Hitzaldia

Treba Gurasoak: "Pornografia gaur egungo sexu heziketa ote?"

18:00-19:30, *Gazte Lokala*.

OSTEGUNA 9

ANDOAIN Ikus-entzunezkoak

Laburbira, film laburren emanaldia.

18:00-19:30, *Gazte Lokala*.

OSTIRALA 10

ANDOAIN Kontzertua

Idoia Asurmendik "De amar y desandar" diskoa aurkeztuko du.

20:00, *Bastero*.



Tradizio handiko ospakizuna da maiatzaren 3koa, Urnietan. AIURRI

URNIETA Santa Krutz eguna Azkorteko ermitan

Maiatzak 3, ostirala

Urnietarren ospakizuna, Udalak antolatuta:

11:00 Meza Azkorteko ermitan.

12:30 Anjel Larrañaga eta Aritz Igarzabal bertsolariak, Ansozregi eta Larrañaga trikitilariak. Doako bus-zerbitzua Azkortera, Pintore kaletik abiatuta: 09:30-14:00 artean. Azken aldiz 12:00etan igoko da.

Maiatzak 5, igandea

Lasarte-Oriakoen ospakizuna, Ttakunek antolatuta:

10:00 Tabernaren irekiera. Haragi egosia, odolkia, txorizoa eta edari freskoa eskainiko dute bertaratzen direnentzat.

11:00 Meza, Azkorteko basilizan. Alboka abesbatzak abestuko du elizkizunean.

12:00 Herri kirolen erakustaldia eta trikitilariak.

Maiatzak 3, ostirala; Maiatzak 5, igandea. Azkorte.

Eguzkitan blai! eta Kirol udalekuak, udako eskaintza

Uda gerturatzen ari da eta Urnietako Udalak abian jarriko du, beste urte batez, haur eta gazteentzat Eguzkitan blai! eta Kirol Udalekuak eskaintza bikoitza. Izena emateko epea zabalik dago eta epea ostiral honetan, maiatzak 3, amaituko da. Datari eta ordutegiari dagokionez, eskaintza berdina da. Bost

txanda izango dira, ekainaren 24tik uztaillaren 26ra. "Eguzkitan blai!" eskaintzan 2012-2020 urteen bitartean jaiotako haurrek har dezakete parte. "Kirol udalekuak" delakoan, aldiz, 2015-2020 urteen bitartean jaiotakoek.

Ohiko bideak erabili behar dira izena emateko garaian, maiatzaren 3a baino lehen:

- Bertan bulegoa, udaletxea.
- Lekaio kultur etxea.
- www.urnieta.eus webgunea, izen-emateko afitxa betez.

ZINEMA




ANDOAIN

BASTERO

Pequeñas cosas indiscretas
Lar, 4. 19:30.
Ig, 5. 19:30.
Astl, 6. 19:30, 22:00.

El especialista

Lar, 11. 19:30, 22:00.
Ig, 12. 19:30.
Deep Sea. Viaje a las profundidades
Lar, 11. 17:00.
Ig, 12. 17:00.



Pequeñas Cartas Indiscretas

Zuzendaria: Thea Sharrock. **Gidoia:** Jonny Sweet. **Aktoreak:** Olivia Colman, Jessie Buckley, Anjana Vasan, Timothy Spall, Joanna Scanlan... **Herrialdea:** Britainia Handia (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Komedia, drama. **Iraupena:** 101 min.

Littlehampton kostaldeko hirian, Edith Swan eta herriko beste biztanle batzuk eskandaluzko gutunak jasotzen hasi ziren,

hizkera xeble bezain lizunez idatziak. Berehala, askatasunean bizi den Rose Gooding susmagarri bilakatuko dute.

SANTAKRUTZAK ANDOAINEN

MAIATZAK 2

OSTEGUNA KUADRILLA EGUNA

17:30 Puzgarriak, Zumea plazan. Euriarekin, Ondarretan.

19:00 Tabernen arteko X. Pintxo txapelketa. Parte-hartzaileak: Txalaka, Txitibar, Muga, Turi Beltz, Hiru, Tokitxo, Urkiola, Irunberri, Txindoki eta Gaztelutxo.

19:30 Plaza dantzak, Juanita Alkain plazan.

22:00- 04:00 Kaparrak taldearen kontzertua. Ondoren, DJ Naza Bekoplazan.

MAIATZAK 3

OSTIRALA SANTAKRUTZ EGUNA

10:30 Dultzaineroen saioa.

10:30 Banderaren jaitsiera: udal korporazioa eta txistulariak lagunduta.

10:30 Ezpata-dantza zubian.

11:00 Meza, Alberto Agirre abesbatzarekin.

11:00 Eskopeteroak. Ondoren, ezpata-dantza eta brokel dantzak, zubian.

12:00 Txakolina, Espigoian. Euriarekin, Bekoplazan.

12:00 Andoaingo trikitilarien kalejira, Plaza moretik.

16:00 Jokai, egurrezko jokoak, Espigoian. Euriarekin, Zumea plazan.

19:00 Jira Bira haur diskojaia, Zumea plazan.

20:00 Elektropottotte elektrotxaranga, txosnagunetik hasita.

23:00-04:00 Kontzertuak: Nikotinaren eta Hofe x 4:40.

MAIATZAK 4

LARUNBATA

10:30 Artisau azoka Zumea plazan.

10:30 Xake txapelketa Juanita Alkain plazan.

11:00 Musika eskolako akordeoien kalejira, Plaza Morean hasita.

12:00 Punttuka bertso-eskolako kideak eta Maizorri taldeko txalapartariak, Zumeatik.

12:00 Kantu kalejira, Plaza moretik.

14:00 Auzo bazkaria Kale Nagusian. Euriarekin, Zumea plazan.

16:30 Ondoren, La jodedera.

17:30 Puzgarriak Zumea plazan.

18:00 Bakailao txapelketa Kale Nagusian.

19:30 DJ saioa Zumean: Bomber, Ibandevice, Shaker.

22:30 Santa Krutz Peñaren danborrada.

23:00 Muxutruk, DJ Fresa Morango.

MAIATZAK 5

IGANDEA

11:00 Urki dantza taldearen kalejira eta emanaldia, Zumea plazan.

12:00 Udak musika eskolako Banda, Juanita Alkain ondoan.

13:00 Bermoutha eta DJ Ezekiel Bekoplazan.

17:00 Sagardo-txapelketa Zumea plazan.

17:00 Basataloak Zumea plazan.

19:00 Babarrunba taldea Zumea plazan.

21:45 Zezensuzkoa, Zumea kaletik.

22:00 Festa amaiera, Zubiaurren.



Bizipoza jaian ehunka lagun elkartu ziren, aurreko larunbatean. BIZIPOZA

Bizipoza Jaia, aniztasunaren festa erraldoia

Eguraldi petralak ezin izan zuten zapuztu antolatzaileen eta laguntzaileen ilusioa eta gogoia

Aiurri komunitatea

Bizipoza elkarte

BETERRI-BURUNTZA

Horrelakoa izan zen Bizipoza Jaia Hernanin, joan zen larunbatean, bertaratu ziren milaka herritar eta familien parte-harztearekin. Eguraldi petralak ezin izan zuten zapuztu antolatzaileen eta laguntzaileen ilusioa eta gogoia, eta aho zapore ezin gozoarekin amaitu zuten eguna, jendearen erantzunarekin.

Atsegindegi gune estalia izan zen festaren erdigunea, bertara mugitu baitzituzten ekintza guztiak, eguraldiaren eraginez. Eta lepo bete zen plaza, goizetik iluntzera bitarte, ekintzaz ekintza. Bizipoza osatzen duten elkarteak izan ziren protagonista, uneoro. Bakoitzak jarri zuen bere postua, elkarteari buruzko informazioa emateko bertaratuei. Baina postuetatik taula gainera ere eraman zuten haien jarduna. Zapotxin,


Porrotx eta Marimotots pailazoen ikuskizunean, esaterako, elkarre bakoitzeko ordezkariak igo ziren taula gainera txandaka, eta azaldu zuten zer den Bizipoza haientzat: guztiek partekatu zuten beraien bizipoza.

Askoren artean, aipagarria da Pausokak antolatutako paella. Denek nahi izan zuten bertan bazkaldu eta, azkenerako, arroz alerik ere ez zen geratu! Eskertza ekitaldia izan zen Bizipoza Jaia- ren une berezietako bat. Emozioak ageri-agerian zirela, urte osoan zehar egiten duten lan nekaezina eskertu zieten Bizipoza osatzen duten elkartei. Ezin eskertu gabe utzi parte-hartzaileen, babesleen, antolatzaileen eta bolondresen lana ere, beraiei esker izan baitzen posible larunbateko festa. Guztien lan eta ekarpenagatik hartu baitzuen zentzua, denbora luzez egindako lanak.



Urnieta
udala


ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Perutxi
Apirilaren 26an
10 urte pottolo bete zenituen.
Muxu potoloak, etxeokak



ANDOAIN
Zorionak Pello
San Prudentzio eta Santakruzak artean badago zer ospatua ere...
Muxuak, etxeokak.



ANDOAIN
Zorionak Malen
Apirilaren 25ean,
17 urte bete zenituen. Asko maite zaitugu!
Etxeokak



ANDOAIN
Zorionak Leire
Maiatzaren 6 an 35 urte beteko ditu. Segi horrela, beti bezela. Muxu handi bat. Etxeokak



ANDOAIN
Mara Urdangarin Sistiaga
Apirilaren 30ean urte 1 bete zuen. Zorionak etxeokoen partetik, maitia!



ANDOAIN
Mario
6 urte, Mario! Zorionak! Aiurriko lantaldeko bizipoza dugu Mario bizilaguna.

Parketarrak

Egunik onenak elkarrekin euskaraz jolasean

Andoain

Maiatzak 7, 14, 21 eta 28
astearteak

- **Zabu-Zibu** (helduekin)
(3-5 urte) 17:15
- **Txirrintxon**
(6-9 urte) 18:15

GOIKOPLAZAN

Maiatzak 8, 15, 22 eta 29
asteazkenak

- **Zabu-Zibu** (helduekin)
(3-5 urte) 17:15
- **Txirrintxon**
(6-9 urte) 18:15

ZUMEA PLAZAN

* Nafarroa plazan

hezten

aniztasunaren
muskuztatze

ANDOAINGO UDALA

andoainDARRA
euskaraz



“Helburu nagusia ikasleen garapenean laguntzea da”, adierazi du Arantzazu Miner irakasleak. MAGALE



Badira bost urte Salestarrak Magale Urnieta ikastetxean mota honetako proiektu berritzaileak beren plangintzetan sartzen hasi zirela. MAGALE

Arrakasta handiko musikala

Salestarrak Magale ikastetxeko ikasleen ‘Lehoi Erregea’ musikalak bi aldiz bete zuen Sarobe antzokia. Laurehun lagunetik gora batu zituen euskarazko antzezlanak, aurreko ostiralean

Aiurri komunitatea

Salestar-Magale ikastetxea
URNIETA

Estreinatuta baino egun batzuk lehenago jada ‘Sarrerak bukatuta’ kartela eskegi zuten bi saioetan. Ikuskizunarekin zuzeneko

eta zeharkako gaitasunak lantzen dituen arloarteko proiektuari amaiera “arrakastatsua” eman diote ikasleek. “Erabat ikusgarria izan da”, esan du ikusle batek emozioari ezin utsita, musikalaren lehenengo saioaren amaie-

ran. 12-13 urteko protagonistek zuzenean abestu dute, dantza egin, interpretatu, zuzeneko musika ekaini... Hala, publikoa emozionatu eta zutik jarri da. Amaieran jende-ilarak sortu dira parte-hartzaileekin proiektuaren

barnean sortu duten photocalleen argazkiak ateratzeko. Izan ere, “mimoz eta ilusioz” egin den proiektu berritzailea da musikala. Bertan, arte eszeniko, plastiko eta musikalak hizkuntzarekin uztartuz egiten dute lan. Zehazki, publikoak erruz txalotu eta goraiatu du 40 ikasle eta 4 irakasle osatutako taldeak egingo dako lana.

Lan handiko ekimen pozgarria

Proiektu honen bitartez Euskarako, Musikako edota Plastikako edukiak lantzeaz gain, hainbat zeharkako gaitasunetan jartzen da fokoa, hala nola sormena, lidergotza, motibazioa, konpromisoa edota konfiantza; guztiak oso garrantzitsuak nerabezaroaren atarian dauden ikasleen garapen pertsonalerako. “Lan handia egin dugun arren, oso pozgarria izan da guk hainbeste sinesten dugun proiektua gauzatzea”, esan du Arantzazu Minerrek, ‘Lehoi Erregea’ musikala bultzatu duen ikasletako batek. “Lotsa kentzea lortu dut musikarekin”, adierazi digu Maria Balbas DBH1eko partehartzaileak. Era berean, Balbask gaineratu

du “jabetu naiz esfortzua eta sakrifizioa uztartuta gai garela horrelako lan konplikatuak aurrera eramateko”. Aimar Roman gazteak, berriz, azaldu du ‘Lehoi Erregea’ dela eta “lehen gaztele-raz hitz egiten nuen lagun batzuekin orain euskaraz hitz egiten dut”. Bere iritzia eman du ere Ignacio Goikoetxeak, Scar maltzuraren paperean sartu den gazteak: “Lehoi erregearekin konturatu naiz talde lanean guztiok garela ezinbestekoak”.

Proiektu berritzaileekin lanean

Badira bost urte Salestarrak Magale Urnieta ikastetxean mota honetako proiektu berritzaileak beren plangintzetan sartzen hasi zirela. Izan ere, Minerren hitzetan, “helburu nagusia ikasleen garapenean laguntzea da eta horretarako euskara, arte plastikoak, eszenikoak eta musika uztartzean dituen gisa honetako lanetan dute jarria fokoa, besteak beste”. Hori guztia, noski, “proiektuak errealak izateak eskuarteant dituzten helburu horiek are eta arrakastatsua gauzatzen laguntzen dute”, azpimarratu du irakasleak.



Maiztaren 6tik aurrera
Egunean Behin-eko
15. denboraldia
martxan jarriko da

ALTUNA
SAGARDOTEGIA - SIDRERIA

Erreserbak: 943 554 917 - 650 266 925

Galarraga baserria, Lategi auzoa 5, URNIETA. @altuna_sagardotegia

egunean behin?